

## GIL 10 Urizaharreko errotako ur-begia



Urizaharreko iturburua.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 38' 45,43''

Long.: 2° 42' 45,00'

- **UTM koordenatuak:**

X: 523.567,66 m

Y: 4.721.539,75 m




### Nola iritsi

GIL hau Urizaharreko iparraldeko sarreran dago, Gasteiztik A-2124 errepidetik sartuz.

### GILaren deskribapen laburra

Urizaharreko iturburua Kantabriako mendilerroko unitate hidrogeologikoko deskarga-puntu nagusia da; haren urteko ekarpena 230 l/s da, eta bi materialen arteko kontaktu mekanikoan azaleratzen da: batetik, izen bereko diapiroko materialak eta, bestetik, iturburuaren ekialderantz hedatzen den Lozako egitura sinklinalari lotutako Paleozenoko geruza dolomitikoko materialak.



Burbuilak ikusten dira beti putzuaren azpitik gorantz.

Ez du interes geologiko berezirik; bai, ordea, interes geokultural nabarmena, Urizaharreko okindegi famatuko errota funtzionarazten baitu iturburuko urak. Inglares ibaitik oso gertu sortzen da ura, urmael txiki baten hondoan, non burbuilek nola egiten duten gorantz ikusten baita. Urmaela horma batek ixten du, zeinak bi hodi baititu, hondoko hustubide gisa, ura, grabitatearen bidez, bi gurpil horzdun elikatzen dituzten antaparetera eramaten dutena. Gurpilok tarte zabal batean biratzen dira. Handik, harrizko arku bat zeharkatuz, ibilgura iristen gara, eta handik, gero, Inglares ibaira husten da ura.

Errota eta okindegia 1778tik daude martxan.

## Behatzeko punturik onena

*In situ.*

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 51, GIL 129, GIL 74, GIL 122.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 82, GIL 83, GIL 85.



Iturburuaren itxura, errotak martxan jartzeko hustu ondoren.



Urizaharreko okindegiko errotak.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa			●	
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b> Errota eta hari lotutako okindegia, 1788tik.					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifiko

- *Patrimonio geológico de Asturias Cantabria y País Vasco*. ENRESA, 2002.